

TALAIAN

**Zein jolasetan ari dira aurrezki kutxak?**

Aurrezki kutxen etorkizunaz ari dira hitz egiten. Horretan lagundu du PSOEk eta PPK hitzartu duten Kutxan Legearen erreformak. Beste behin Madrilen hitzartutako legea da, eta Hego Euskal Herrian ere eragingo du, inposatuko zaigu. Erreformak krisi ekonomiko finantzarioa du aitzaki eta kutxan pribatizazioari eta bankarizazioari ateak ireki dizkio. Erreforma baino lehen, Hego Euskal Herriko aurrezki kutxak urratsak ematen hasi ziren, diotenez, krisiari eta lehiakortasunari aurre egiteko. Nafarroako CANek hitzarmenak egin ditu aurrezki kanariarrarekin. BBK-k hainbat saiotan porrot egin du. BBK-Kutxa bateatzeak kale egin zuen, gero Gaztela-Mantxako CCM bereganatzen saiatu zen. Ondoren, Valentziako CAMEkin Babeserako Sistema Instituzional bat hitzartzen saiatu ziren. Azkenean, joan den asteburuan, Cajasur bereganatzea lortu du.

Hego Euskal Herriko lau aurrezki kutxak, BBK, CAN, Kutxa eta Vital bakoitza bere aldetik dabil, kontuan hartu gabe Hego Euskal Herriko finantza sistemaren zati natural direla eta erakunde sendoa osa dezaketela. Egitura hori ez osatzeko arrazoi politikoak eta ekonomikoak daude. Horregatik, batzuentzat komenigarria da kutxa horiek Espainiako Estatuko beste erakunde batzuekin bat egin dezaten, bidean Hego Euskal Herrikoen arteko loturak urtu daitezten. Lau aurrezki kutxek batera, finantza gaitasun handia daukate eta kaudimen handia krisitik ateratzen laguntzeko. Batuko balira, gure finantza sistema eraikitzeak hasiera litzateke eta garapen ekonomiko eta sozialerako balioko luke. Horretarako, borondate politikoa behar da. Horren arduradun eta kudeatzaileek, aldiz, badirudi beste zerbaitetan ari direla jolasean.

*Juan Mari Arregi*

**EEPko Eiherrabide zuzendariak kargua utzi du**

ESTEBE EIHERABIDE izan da Euskararen Erakunde Publikoko zuzendaria orain arte, 2008ko urriaz geroztik. Berak adierazi duenez, Baigorri-Garazi Herri Elkargoko administrazio zerbitzuen zuzendari lanetan hasiko da urriaren 15ean.

**Pellot askatzailea**

EUSKALTEGIAN zabaldu da, EGA gaintu ez zuen ikasle bat ikaskideak hiltzen hasi dela, halakoa da bere amorrua eta atsekabea. Botila barruko mezua bidez, ikasle horrek adierazi du bera ez dabilela ikasleak hiltzen, baizik eta animatzen. Pellot da bera eta ikasleak euskara ikastearen betebeharretik askatu nahi ditu. Bilboko Zenbat Gara elkarteak zintzilikatu du bideoa, euskara ikasleek egindakoa. Interneten, tankera horretako gero eta bideo gehiago ageri dira, umorea nagusi dela.

BAHEA

Txerra Rodriguezek Garagoikoa blogean esanak:  
 “1981. urtean euskaldunak %50 baino gutxiago ziren herri guztietan euskarak irabazi egin du, guzti-guztietan. Baina 1981ean %50 baino gehiago ziren herrietan zer gertatu da? Ba herri askotan galerak izan dira, herri askotan. 2006an euskaldunen kopuru erlatiboa jaitsi da 84 herritan, Bizkaian eta Gipuzkoan (Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko daturik hobeto ez eman). Eta hango eskualde euskaldunenetan: adibidez, Tolosaldean 20 herritan, Busturialdean 15 herritan, Lea-Artibain 10 herritan, Goierri 9 herritan edo Uribe Butroen 8 herritan. (...) Mila aldiz egiten dugu berba euskararen herriak sustatzeaz eta indartzeaz, ekimenak ere bideratu ditugu, baina atzeko atetik galtzen ari gara...”

**korrontzi oinkari**

2010/01/02 DONOSTIA (DOKA - KULTURA LIVE) 2010/02/16 ERMUA (ORBE KARDINALAREN PLAZA) 2010/02/27 BERMEO - IBILALDI JAI (FRONTOIAN) 2010/05/02 NESLE - FRANTZIA (FESTIVAL NUITS CELTIQUES) 2010/05/14 DONOSTIA (MIRAMON - ETB) 2010/05/16 BEASAIN (PLAZA) 2010/05/22 ORAZO - PONTEVEDRA (MANGUELO FOLK JAIALDIA) 2010/05/28 SODUPE - GÜENES 2010/06/25 TERUEL (POBORINA FOLK) 2010/06/29 SEGOVIA (FOLK SEGOVIA JAIALDIA) 2010/07/02 ONDARA VALENTZIA 2010/07/18 REGUENGOS DE MONSARAZ - PORTUGAL 2010/07/21 VALLS - TARRAGONA (PLAZA) 2010/07/22 VILA REAL DE SANTO ANTÓNIO (ALGARVE) - PORTUGAL 2010/07/23 GATIKA - BUTROI 2010/07/24 ALFANDEGA DA FÉ (TRAS OS MONTES) - PORTUGAL	2010/07/25 VILLABONA (ERREBOTE PLAZA) 2010/07/31 OLOST- KATALUNIA 2010/08/09 HUESCA (FOLK IBERICO JAIALDIA) 2010/08/11 AZORES (LARGO CARDEAL COSTA NUNES) 2010/08/13 ZARAUTZ (PLAZA) 2010/08/26 LAUDIO (PLAZA) 2010/08/29 BERRIOZAR - NAFARROA (PLAZA) 2010/09/11 CASTRO VERDE (ALENTEJO) - PORTUGAL 2010/09/24 BASAURI (SAN MIGUEL) 2010/10/10 SEGURA (34. EUSKAL HERRIKO DANTZA TXAPELKETA) 2010/10/31 SAN ADRIAN - NAFARROA 2010/11/12 IRURTZUN - NAFARROA 2010/11/19 LEKUNBERRI - NAFARROA 2010/11/20 CASTEJON - NAFARROA 2010/11/21 ELIZONDO - NAFARROA 2010/12/08 DURANGOKO AZOKA (PLATERUENA)
---	---

**korrontzi**  
 Zuzeneko berria, INFERNUKO HAUSPOA ikuskizuna  
 (korrontzi & oinkari dantza taldea)

**KONTRATAZIOA ZABALIK**  
 Baga-Biga musika bulego integral eta globala  
 618072076 / 026

baga-biga musika ideiak  
 telf. 618 072 076 / 026  
 www.baga-biga.com / info@baga-biga.com